

ARABA

KONTAIGUZU

ONDAREAREN
EUROPAKO
JARDUNALDIAK
2020

ONDAREAI!

HEZKUNTZA



ETA ONDAREA




Ondarearen europako
jardunaldiak
Jornadas europeas
de patrimonio



**Edukiera gobernuak ezarritako
segurtasun neurrietara mugaturik
egongo da.**

**Osasun neurri bereziak eta programa
aldatu egin daitezke osasun neurriak
aldatzen badira**

**Maskara nahitaez erabili behar da
Sarrera doan**





ARABA

ONDAREAREN
EUROPAKO
JARDUNALDIAK
2020

ÁLAVA

JORNADAS
EUROPEAS DEL
PATRIMONIO
2020

KONTAIGUZU ONDAREA! HEZKUNTZA ETA ONDAREA PATRIMONIO Y EDUCACIÓN

URRIAK 1, OSTEGUNA

ORRIA

4

BISITA GIDATUA.

"Representaciones Iconográficas de la Educación en la Catedral Nueva".

Ordua: 11:00.

Elkartzeko Lekua: Vitoria-Gasteiz. Maria Sortzez Garbiaren Katedrala (Katedral Berria). Arte Sakratuaren Museoaren sarrera (Cadena y Eleta kalea, zk.g.).

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

URRIAK 3, LARUNBATA

ORRIA

5

BISITALDI GIDATUA.

Ozioko Gaztelua.

Ordua: 11:00.

Elkartzeko Lekua: Ozioko gazteluako aparkalekuan.

Erreserba: Arabako Arkeologia

Institutua. secretaria@iaa-aa.org

URRIAK 4, IGANDEA

ORRIA

6

NATURA IBILBIDEA.

Gorbeialdea.

Ordua: 10: 00 - 13: 00.

Elkartzeko Lekua: MURUA. Harrobien aisiagunea (Gorbeiako Parke Naturala). Harrobien errepidearen amaieran, azken aparkalekuan. Irteeraren hasiera eta amaiera lekua.

Hizkuntza: Euskaraz.

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

URRIAK 8, OSTEGUNA

ORRIA

7

ZINE ARKEOLOGIKOA.

Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologiko ibiltaria.

"Looking for Sapiens" (Sapiens-en bila). Jatorrizko bertsi azpitoluduna (gastelaniaz).

Aurkezpena: Cristina Camarero Arribas.

Ordua: 19.00etan.

Lekua: BIBAT. Aiztogile kalea, 54. Vitoria-Gasteiz.

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

URRIAK 10, LARUNBATA

8

BISITALDI GIDATUA.**Artziniega Museoa.****Ordua:** 11:00 / 16:30: Euskaraz.

12:30 / 18:30: Gaztelaniaz.

Elkartzeko Lekua: Artziniega. Artziniega Museoa (Arteko Aldapa kalea, 12)**Erreserba:**945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

URRIAK 11, IGANDEA

9

BISITALDI GIDATUA.**Alto Castejón interpretazio gunea eta aztarnategia****Ordua:** 11:00.**Elkartzeko Lekua:** Navaridas.

Navaridasko interpretazio zentroa – Sodupetarren jauretzea (Arabako Foru Aldundiaren kalea, 3)

Erreserba:945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

URRIAK 12, ASTELEHENA

10

BISITALDI GIDATUA.**Lazarraga Kultur****Gunea - Zaldondo.****Ordua:** 11:00 Euskaraz / 12:30 Gaztelaniaz.**Elkartzeko Lekua:** Zaldondo. Lazarraga Kultur Gunea. Iturribarri Auzoa, 9.**Erreserba:**945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

URRIAK 14, ASTEAZKENA

11

HITZALDIA.**Arte Erromanikoaren IV. Jardunaldiak****“Las Arcadas claustrales de Mas de Vent. De Salamanca a Palamós”.****Ordua:** 19:15.**Hizlaria:** Gerardo Boto Varela. Universitat de Girona.**Lekua:** Presentziala. EHUko Letren Fakultateko areto nagusia. Pertsona kopuru mugatua izango da. Linean, irerian: EHUko plataforma digitala.

ORRIA

URRIAK 15, OSTEguna

12

ZINE ARKEOLOGIKOA.**Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologiko ibiltaria.****“Tutankamon, le tresor redcover!”**

(Tutankamon berriro aurkitutako altxorra). Jatorrizko bertsio azpituluduna (gastelaniaz).

Aurkezpena: Amalia Emborujó Salgado.**Ordua:** 19.00etan.**Lekua:** BIBAT. Aiztogile kalea, 54. Vitoria-Gasteiz.**Erreserba:**945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

URRIAK 17, LARUNBATA

13

NATURA IBILBIDEA.**Izkiko Parke Naturala.****Ordua:** 10: 00 - 13: 00.**Elkartzeko Lekua:** Urturi. Golf zelaiko aparkalekuan. Irteeraren hasiera eta amaiera.**Erreserba:**945 101 070 / info@kalearte.com

URRIAK 18, IGANDEA

BISITALDI GIDATUA.

Sobrongo Ur Museoa

Ordua: 11:00 Euskaraz / 12:30

Gaztelaniaz

Elkartzeko Lekua: Sobron. Ur Museoa (La Presa kalea, 1).

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

14

URRIAK 22, OSTEAGUNA

ZINE ARKEOLOGIKOA.

FILMA: "Otzi, Izotz Gizona"

(Iceman, 2017).

Aurkezpena:

Aitor Sánchez López de Lafuente.

Ordua: 19.00etan.

Lekua: BIBAT. Aitzogile kalea, 54. Vitoria-Gasteiz.

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

15

URRIAK 24, LARUNBATA

BISITALDI GIDATUA.

Elizbarrutiko Seminarioa

Ordua: 11:00 Euskaraz / 12:00

Gaztelaniaz

Elkartzeko Lekua: Elizbarrutiko Seminarioa (Tomás Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67).

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

16

URRIAK 25, IGANDEA

BISITA AKTIBOA.

Bibat Museora.

Ordua: 12:00.

Lekua: BIBAT. Aitzogile kalea, 54 Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza: Euskaraz.

Gida: Iban Zaldua

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

17

URRIAK 28, ASTEAZKENA

HITZALDIA.

Arte Erromanikoaren IV. Jardunaldiak.

"El Beato del Monasterio de Silos en la British Library".

Hizlaria: Ángela Franco. Arkeologia Museo Nazionala.

Ordua: 19:15.

Lekua: Presentziala. EHUko Letren Fakultateko areto nagusia. Pertsona kopuru mugatua. Linean, irekian: EHUko plataforma digitala.

ORRIA

18

URRIAK 31, LARUNBATA

BISITALDI GIDATUA.

Lantenoko antzinako eskolak.

Ordua: 11:00 Euskaraz / 12:30

Gaztelaniaz

Elkartzeko Lekua: Lanteno. Antzinako eskolak (Pizparrutxi auzoa 35)

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

19

URRIAK 31, LARUNBATA

HITZALDIA.

"Conoce Valdegovia por sus montes".

Hizlaria: Juan Carlos Abascal.

Ordua: 18:00.

Lekua: Uribarri Gaubea. Gaubeako Udaleko erabilera anitzeko aretoa (Jesus Guinea arkitektoaren kalea 46)

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

ORRIA

20



BISITA GIDATUA.

“Representaciones Iconográficas de la Educación en la Catedral Nueva”.

Ordua: 11:00.

Gidaria: Kalearte turismo y cultura SLLGasteizk.

Elkartzeko Lekua: Vitoria-Gasteiz. Maria Sortzez Garbiaren Katedrala (Katedral Berria). Arte Sakratuaren Museoaren sarrera (Cadena y Eleta kalea, zk.g.).

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

Katedral Berriaren hasierako proiektuak programa ikonografiko konplexu bat izan zuen, kontzeptu teologikoak eta debozio elizkoiak euskal lurralde historikoen historiarekin lotzen zituen. Horregatik, ez da harritzekoa tenpluaren ikonografia XX. mendeko lehen hamarkadetan politikoki eman zen eztabaidarik garrantzitsuenetako batean murgiltzea: erlijio hezkuntza vs hezkuntza zibila. Tenpluko eskulturan agertzen diren hezkuntzaren irudikapen ikonografikoetan inarrituko da ibilbidea.





3 URRIAK LARUNBATA

BISITALDI GIDATUA Ozioko Gaztelua.

Ordua: 11:00.

Gidaria: José Luis Solaun.

Elkartzeko Lekua: Ozioko gazteluaren aparkalekuan.

Izena emateko epea: urriak 2 baino lehen (ostirala).

Erreserba: Arabako Arkeologia Institutua. secretaria@iaa-aa-i.org

Ez da erraza Ozioko gazteluaren jaiotza koordinatu historikoetan interpretatzea. Zabalateko gaztelua XI. mendeko lehen urteetan sortu zen Iruñeko Erresumaren administrazio-gune izateko, baina Ozioko gotorlekuaz ezin da hain argi adierazi noiz sortu zen.

Ebidentzien arabera, XII. mendean hasi ziren eraikitzen, baina, azkenean, eraikuntza faseen segida baten emaitza da (sei fase inguru). Fase horiek XVI. mendearen hasieran amaitu ziren, eta, ondoren, gaztelua guztiz abandonaturik utzi zuten.

Litekeena da, jatorrian, errege titularitatepean egotea (Nafarroaren eta Arabaren arteko muga kontrolatzeko, Nafarroako eta Gaztelako koroek etengabe izan zuten borroken testuinguruan). Baina handik gutxira eskualdeetako aristokrazia garrantzitsuek kudeatu zuten, eta botere publiko eta pribatuaren arteko harreman konplexuen lekuko izan zen, eta, jakina, gotorleku hark izan zituen eginkizun ugariena. Izan ere, XIV. mendearen 2. erdialdetik aurrera, Gaztelako erresumaren ahulezia politikoaren ondorioz, nobleziaren familia garrantzitsuei errege jabetza ugari eman zitzaizen, Koroari emandako zerbitzuen truke, eta, ondorioz, «noblezia berritu eta noblezia berri bat finkatu zen», eta Ozioren kasuan, Sarmientotarren leinuan agertzen da irudikatuta.



URRIAK 4 IGANDEA

NATURA IBILBIDEA. Gorbeialdea.

Ordua: 10: 00 - 13: 00.

Gidaria: Andoni Llosa (Fauneando SL).

Elkartzeko Lekua: MURUA. Harrobien aisiagunea (Gorbeiaiko Parke Naturala). Harrobien errepidearen amaieran, azken aparkalekuan. Irteeraren hasiera eta amaiera lekua.

Hizkuntza: Euskaraz.

Zailtasuna: Ertaina (12 urtetik gorako pertsonak).

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

bilbidea natura betean garatuko da, eta gure natura ondarearen balioetan eta ezagutzan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik bideratuko da. Intereseko hainbat gairi buruzko azalpenak eskainiko dira, hala nola fauna, flora, etnografia, lurraren erabilera kultural eta tradizionala eta beste batzuk.

ZINE ARKEOLOGIKOA.
Bidasoako Nazioarteko
Zinemaldi Arkeologiko ibiltaria.

"Looking for Sapiens" (Sapiens-en bila). Jatorrizko bertsio azpituluduna (gastelaniaz).

Fitxa teknikoa: Aroa/kultura: Paleolitikoa / Urtea: 2018
Iraupena: 56 / Ekoizpen herrialdea: Frantzia / Lurraldea: Frantzia / Hizkuntza: Frantsesez / Zuzendaria: Coste, Pauline / Ekoizpena: Ça Tourne! / FICAB XIX (2019).

Aurkezpena: Cristina Camarero Arribas.

Ordua: 19.00etan.

Lekua: BIBAT. Aiztogile kalea, 54. Vitoria-Gasteiz.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba:
945 101 070 / info@kalearte.com

Looking for Sapiens-ek XIX. mendean historiaurreko gizakiari buruz sortutako klixek aztertzen ditu, eta historiaurrean adituei eta zaletuei galdetzen die Paleolitoko populazio horien ikuspegi «justuagoa» zein izan daitekeen, ikerketa zientifikoen arabera. Argi ikusten duzu haitzuloetako gizakiak larruzko jantzi txiki bat, makila handi bat, sudurrean hezur bat eta ile xeheak zeramatzala? Ez zela oso argia eta haren hizkuntza ozta-ozta ulertzen zela? Eta emakumea ileetatik arrastaka eramaten zuela? Ba, film hori zuretzat da! Historiaurreari buruz lehendik dituzun ideia horiek guztiak okerrekoak dira, eta frogatu egingo dizugu... dokumental hone-tan!



Bisitaldi gidatua Artziniega Museoa.

Ordua: 11:00 / 16:30: Euskaraz. 12:30 / 18:30: Gaztelaniaz.

Gidaria: Artziniegako Museoa (Ainhoa Astarloa).

Elkartzeko Lekua: Artziniega. Artziniega Museoa (Arteko Aldapa kalea, 12).

Izena emateko opea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

Museora egindako bisitan, Euskadin izan ditugun ikasteko era anitzak ezagutu ahal izango ditugu, bai arautuak, bai lanbideetakoak, edo museoan deitzen dituzten bezala, hiru eskolak: bizitzarena, eta hortik denak pasatzen dira, nahiz eta batzuek ez ikasi. Maisu-maistrarena, non lore soinuak erabiliz hizkiak ehunduz joan baitira esaldiak eta utopiak osatu arte. Eta baita zenbakiak ere, non lan askoren batuketa egin eta erabilpen askoren kenketa egiten baitzen eta hondarrarekin bizitzen jarraitu. Jakinduriaren eskolako maisu ospetsuak izan ziren hainbat artisau, nekazari ugari eta bizitza sotil eta alai baterako behar diren lau arauak gorde eta transmititu zituzten hainbat eta hainbat emakume.





URRIAK IGANDEA

BISITALDI GIDATUA

Alto Castejóngo interpretazio gunea eta aztarnategia

Ordua: 11:00.

Gidaria: Leandro Sánchez Zufiaurre (Quark Arqueología).

Elkartzeko Lekua: Navaridas. Navaridasko interpretazio zentroa – Sodupetarren jauretxea (Arabako Foru Aldundiaren kalea, 3).

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

Sodupetarren jauregi barrokoan dago Alto Castejóngo aztarnategiaren interpretazio zentroa. Gune ezberdinetan zehar egingo dugun ibilbide didaktikoari esker, Navaridaseko biztanleek 5.000 urtean baino gehiagoan izan duten herrixka eta bizimodua ezagutuko ditugu (nekazaritza, abeltzaintza, ehiza, etab.), Neolitikotik Erdi Arora arte. Ondoren, Alto Castejóngo arkeologia aztarnategira joango gara (bisitariak beren ibilgailuetan joango dira).





URRIAK 12 ASTELEHENA

BISITALDI GIDATUA Lazarraga Kultur Gunea - Zaldondo.

Ordua: 11:00 Euskaraz
12:30 Gaztelaniaz.

Gidaria: Lurdes Lekuona Laburu
(Zaldondo Kultura Elkarte).

Elkartzeko Lekua: Zaldondo.
Lazarraga Kultur Gunea. Iturribarri
Auzoa, 9.

Izena emateko epea: Jarduera hasi
baino 48 ordu lehenagorarte.

Erreserba:
945 101 070 / info@kalearte.com

Lazarraga-Amezaga jauregi
Lerrenazentista noblean dago
museo-kulturgunea. Zentrora erai-
kinagatik beragatik ez ezik hango
edukiagatik ere joan behar da.
Hona bisitaldiko erakusgai interes-
garriak: Etnografia; Blas Arratibel
artisautza sarien aretoa; Arabako
landa inauteriak; zeramika aretoa;
herriaren maketa, Blas Arratibelek
egina; XVI. mendeko horma pintur-
ak eta Lazarragaren eskuizkribua.

Hainbat ataletan, belaunaldiz
belaunaldiko kulturaren usadio eta
ohiturak eta transmisioa aipatzen
dira, eta horrek gure aurreko komu-
nitateen balioak eta herri jakintza
ezagutzen laguntzen digu.

HITZALDIA. Arte Erromanikoaren IV. Jardunaldiak

“Las Arcadas claustrales de Mas de Vent. De Salamanca a Palamós”.

Ordua: 19:15.

Hizlaria: Gerardo Boto Varela. Universitat de Girona.

Lekua: Presentziala. EHuko Letren Fakultateko areto nagusia. Pertsona kopuru mugatua izango da. Linean, irekian: EHuko plataforma digitala.



Arabako unibertsitate eta erakunde kultural batzuek erromanikoari buruz antolatzen dituzten jardunaldien laugarren edizioak «Extra Locum. Arte erromanikoa bere jatorri lekutik kanpo» du izena. Artelan esanguratsuei, ikonografiari, egileei, ezaugarriei eta abarri buruzko hausnarketak egingo dituzte.

Hitzaldietako lehena Mas de Vent-eko klaustroari buruzko izango da. Lan honen jatorria oso eztabaidagarria da, eta komunikabideek hura benetakoa zen ala ez dela-eta sortu zen eztabaida akademikoa aditzera eman zutenean egin zen ezagun.

Jardunaldiak EHuko Artearen eta Musikaren Historia Sailak, EHuko Esperientziaren Gelak, Gasteizko Teologia Fakultateko Elizaren eta Arte Kristauaren Historia Sailak eta Kaleartek antolatu dituzte, Vital Fundazioaren, Erromanikoaren Lagunen Elkartearen eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

ZINE ARKEOLOGIKOA. Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologiko ibiltaria.

“Tutankamon, le tresor redécouvert” (Tutankamon: berriro aurkitutako altxorra). Jatorrizko bertsio azpituluduna (gastelaniaz).

Fitxa teknikoa: Aroa/kultura: Egipto / Urtea: 2018 / Iraupena: 90' / Ekoizpen herrialdea: Frantzia / Lurraldea: Egipto / Hizkuntza: Frantsesez / Zuzendaria: Wilner, Frédéric / Ekoizpena: ARTE France / Ekoizpena: ILIADE Productions / Ekoizpena: Les films de l'Odyssee / FICAB XIX (2019).

Aurkezpena: Amalia Emborujó Salgado.

Ordua: 19.00etan.

Lekua: BIBAT. Aiztogile kalea, 54. Vitoria-Gasteiz.


Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com



FICAB

Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa
Festival Internacional de Cine Arqueológico del Bidaso



D uela ia mende batetik daki-gu zer den Tutankamonen altxorra. Baina, benetan ulertzen dugu? Hainbat aurkikuntzek beste begirada bat proposatzen dute errege gaztearen hilobiari buruz, haren hilobiratze hautuei buruz eta haren aurkikuntzaren inguruabarrei buruz. Altxorra, benetan al zen Tutankamone-na? Howard Carter arkeologoak eta bere mezenas Lord Carnavonek hilobitik objektu batzuk lapurtu al zituzten? Dokumental honek erregearen hilobiaren historiaren eta eduki arkeologikoaren irakurketa berri bat eskaintzen du: Antzinako Egiptoko historiaren gertaera handi bat, berri-kusirik eta zuzendurik.



URRIAK 17 LARUNBATA

NATURA IBILBIDEA. Izkiko Parke Naturala.

Ordua: 10: 00 - 13: 00.

Gidaria: Andoni Llosa (Fauneando SL).

Zailtasuna: Ertaina (12 urtetik gorako pertsonak).

Elkartzeko Lekua: Urturi. Golf zelaiko aparkalekuan. Irteeraren hasiera eta amaiera.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

bilbidea natura betean garatuko da, eta gure natura ondarearen balioetan eta ezagutzan oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik bideratuko da. Intereseko hainbat gairi buruzko azalpenak eskainiko dira, hala nola fauna, flora, etnografia, lurraren erabilera kultural eta tradizionala eta beste batzuk.



URRIAK 18 IGANDEA

BISITALDI GIDATUA Sobrongo Ur Museoa

Ordua: 11:00 Euskaraz / 12:30 Gaztelaniaz.

Gidaria: Ur Museoa.

Elkartzeko Lekua: Sobron. Ur Museoa (La Presa kalea, 1).

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

Sobron atsedena eta osasuna da. Hango iturburuetatik datorren urak direla-eta, herrian Euskadiko bainuetxe garrantzitsuenetako bat dago. Antzinako bainuetxe zati bat Uraren Museoa da egun, eta museo horrek funtsezko tresna izan nahi du ingurumen hezkuntzarako eta bisitariak natura baliabideen kontserbazioan, ingurumenaren hobekuntzan eta uraren kontsumo arduratsuan parte hartzeko.

ZINE ARKEOLOGIKOA

FILMA: "Ötzi, Izotz Gizona" (Iceman, 2017).

Fitxa teknikoa: Urtea: 2017 / Iraupena: 97' / Ekoizpen herrialdea: Alemania / Lurraldea: Alemania / Hizkuntza: alemana / Zuzendaria: Felix Randau / Ekoizpena: Port au Prince Film & Kultur Produktion, Echo Films, Lucky Bird Pictures, Amour Fou Filmproduktion.

Aurkezpena: Aitor Sánchez López de Lafuente.

Ordua: 19.00etan.

Lekua: BIBAT. Aiztogile kalea, 54.Vitoria-Gasteiz.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

Oztal Alpeetan, duela 5.300 urte baino gehiago, klan neolitiko bat ezarri zen. Klanaren burua, Kelab, Tineka santutegi sakratuaren zaindaria zen. Egun batean, Kelab ehizara joaten den bitartean, bizilekua erasotzen dute, eta tribuko kideak basatiki hiltzen dituzte, Kelaben emaztea eta semea barne. Santutegia lapurtzen dute eta bizi-rik geratzen den bakarra haur jaioberri bat da. Minak itsututa, Kelabek mendekua bilatzeko bidaiara egiten du, eta haurra berarekin eramatea beste aukerarik ez du.



BISITALDI GIDATUA Elizbarrutiko Seminarioa

Ordua: 11:00 Euskaraz / 12:00 Gaztelaniaz.

Elkartzeko Lekua: Elizbarrutiko Seminarioa (Tomás Zumarraga Dohatsuaren kalea, 67).

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

1 930ean inauguratu zen; garaiko erosotasun guztiak ditu eta bere garaiko arkitekturaren adibiderik onenetakoa da. Zentro hau kulturgune garrantzitsua da, non kulturako pertsona ospetsuek ikasi baitute, bai eta Europa osoko beste seminario batzuetarako adibidea ere.

Eraikin bikain hori Pedro Asua Jaun Dohatsuak diseinatu zuen, eta ibilbidean bere txorrik ederrenetako batzuk ezagutu ahal izango dira, hala nola ekitaldi aretoa, areto nagusia eta kapera publikoa, eguneroko beste batzuekin batera, hala nola antzinako jantoki eta gelak.



BISITA AKTIBOA Museo Bibatera.

Ordua: 12:00.

Lekua: BIBAT. Aiztogile kalea, 54 Vitoria-Gasteiz.

Hizkuntza: Euskaraz.

Gida: Iban Zaldúa.

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com



HITZALDIA. Arte Erromanikoaren IV. Jardunaldiak.

“El Beato del Monasterio de Silos en la British Library”.

Hizlaria: Ángela Franco. Arkeologia Museo Nazionala.

Ordua: 19:15.

Lekua: Presentziala. EHUko Letren Fakultateko areto nagusia. Pertsona kopuru mugatua. Linean, irekian: EHUko plataforma digitala.

Arte Erromanikoari buruzko Arabako IV. Jardunaldietako bigarren hitzaldiak Liebanako Dohatsuaren «San Joanen Apokalipsiari buruzko iruzkina» izango du ardatz. Kodex hau, gaur egun Britainiar Liburutegian dagoena, Silosko San Domingoren monasterioan egin zen, 1091tik 1109ra bitartean. Kolore distiratsuz margotua eta urrezko eta zilarrezko ogiz apaindua, bere 106 miniaturek eszenarik bikainenak irudikatzen dituzte.

Jardunaldiak EHUko Artearen eta Musikaren Historia Sailak, EHUko Esperientziaren Gelak, Gasteizko Teologia Fakultateko Elizaren eta Arte Kristauaren Historia Sailak eta Kaleartek antolatu dituzte, Vital Fundazioaren, Erromanikoaren Lagunen Elkartearen eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin.



BISITALDI GIDATUA Lantenoko antzinako eskolak.

Ordua: 11:00 Euskaraz / 12:30 Gaztelaniaz.

Gidaria: Luis Padura Elorza (Valle de Llanteno arte elkarte).

Elkartzeko Lekua: Lanteno. Antzinako eskolak (Pizparrutxi auzoa 35).

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba: 945 101 070 / info@kalearte.com

Eraikin ikusgarri hau, 2.000 m²-koa, 1897an eraiki zen Antonio eta María Francisca de Murga Michelena jaun-andreen eta Antonio de Vitórica Revilla jaunaren eskuzabaltasunari esker. Eskolak, probintzian hobekien horniturikoak, 1969ra arte egon ziren irekita. 2002an, eraikina monumentu izendatu eta Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian Kultura Ondasun izenarekin sartu zuten.

Bisitaldia ez da iraganetik ibilbide malenkoniatsua izango, gaur egun eraikinak arautu gabeko kultura eta hezkuntza jarduera bizia baitu. Lantenoko Kontzejuari eta Valle de Llanteno Elkarte Artistikoari esker, eskoletan lantegiak, ikastaroak eta erakusketak egiten dira, bailarako biztanleak hainbat diziplinatan trebatzeko. Nork dio Lantenoko eskoletan ez dela oraindik irakasten eta hezten?





URRIAK 31, LARUNBATA

HITZALDIA.

“Conoce Valdegovía por sus montes”.

Hizlaria: Juan Carlos Abascal.

Ordua: 18:00.

Lekua: Uribarri Gaubea. Gaubeako Udaleko erabilera anitzeko aretoa (Jesus Guinea arkitektoaren kalea 46).

Izena emateko epea: Jarduera hasi baino 48 ordu lehenagora arte.

Erreserba:

945 101 070 / info@kalearte.com

Hitzaldia Gaubeako mendi ibilaldiak ezagutzeko gonbidapena izango da, kirola egiteaz gain, ingurua, bertako kultura, historia eta haraneko ondarea ezagutzeko. Horrela, hitzaldiaren bidez, mendi ibiliak kultura sustatzeko baliabide didaktiko bihurtzen dira. 5 ibilbide proposatuko dira: 1) Pico Leron-era igotzea (1241 m) Gaubeako historiaurrean zehar; 2) Angostotik Peña Granjerara edo Peña Los Castroseara (932 m); Corrotik Peña Farriara (1135 m) eta Peña Lisara (973 m); 4) Uribarri Gaubeatik El Rasora (1051 m) eta Valpuestara eta 5) Fontechatik Peña La Uñara (812 m) eta Gesaltza Añanara.